

Iratzeen esporak

IGOR ESTANKONA

 **S** poesia
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2009 Igor Estankona

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2009ko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Ederra izango zen:

«Iratzeen esporak.

Olerkiak.

Gudariek egin dabez ingi-orriak,
ibilli-arazo dabe irarribidia,
banandu dabe idaztia.»

baina

hemen aurkituko dituzunak
iratzeen esporak baino ez dira
uda batez idazten hasitakoak

Vietnam loriatsuaren berrogeita batgarren urtean.

KIND OF BLUE

BANAGO ETA EZ NAGO LURREAN

Baleak ere
baleen hezurretan
marrastuak
euria astiro-astiro
elur.

Lainoek eta haizeak
lekuz aldatzen dituzte
haitzak.

Orain
ura bezain lur da lurra
eta odol tanta bat bera ere ez
arrastiri zuri honen
zeruan.

Ez al gara egongo
negu australean
udan?

HITZEN ERLIEBEA

«Zer Baltza, poetakaz?»

esan zion Karmelo Landak Jon Lopategiri
eta uste dut egun hartan
utzi niola bertsolari izateari.

Idazten dut

katean direnentzako, nire taldekoentzako,
eurena ez den zibilizazio batek
behartutakoentzako.

Liburu bat argitaratu berri zidan
argitaletxe batek, haraxe
isuri nituen ezagutzen ez nituen
hainbat munduren arantzak.

Idazten dut

emakume adimentsuak
nire bizitza hutsa izan arren
erratu daitezen,
pentsa dezaten
nire ilusioekin ukitzen ditudala.

Beraz orain ortu birjina honetara itzuli berri
naizelarik

gupida barik kolpatzen dut lurra
hitzen maitasunera iritsi nahian
eta hala ere ez naiz iristen oinazera
edo xamurtasunaren erdira,
konturatzen naiz hitzen haragia
marmola bezain gogorra eta garbia dela.

PAISAJEA

Suge bat bezain hotz, errepidea
suge bat bezain hotz dago
goizaldeko bostetan
gauaren amaierarantz gidatzen duzu
giza arraza lo dago
eta zure autoaren motorrak
orri hilak erorarazten ditu
haritzetatik.
Heriotza salbak, beleek
heriotza salbak jaurtitzen dizkizute
gidatu, gida ezazu adi,
haizea txistuka ari da
kapotaren gainetik.
Orain dela minutu bat bost gradu zeuden
orain markatzen ditu bi,
izotzezko tunelean zehar
ezin atsedean hartu.
Zaude itzarrik
ez kendu begirik
asfaltoaren ibilbide distiratsutik,
senti ezazu zelan pozoitzen zaizun arima

distantziaren likido urdinarekin.
Denbora arraroetara bueltatu zara
herriko zaharrak jaio baino
urte batzuk geroago,
baina herria sano atzean dago jadanik
orain gasolioaren eta olioaren
eterrean gidatzen zoaz,
aurpegiak ageri dira itsasoan,
baina ez zaude itsasoan jadanik
orain gasolioaren eta olioaren
eterrean igeri zoaz,
azken bururaino.

Goizaren zarata da
airearen himena apurtzen duenean,
zure autoaren motorra da
soinu-langa apurtzen duenean,
ez da goizaldea ez da gaua
ez da ez bata ez bestea
bidaiaren momentu jakin bat da
non zu izateari uzten diozun betiko.

ANTIDOTO ZURIA

Urte birekin koroatu zuten erregina hura lez
moztu duten arrosa gorri itxiaren antzera
zeinak lur ustelarekin egiten duen amets
denok botatzen dugu faltan etorkizuna.
Eta itsasoak dakar beste itsaso zahar bat
maleta bat ohe gainean zabalik
madarikatu egiten dugu biharko alanbrezko
egunkaria
hark dakar-eta gure Nakbaren berri.

Saien janlekuak hutsik daude
eta zerbitzari irribarretsuek
pozoia banatzen dute bidaiarien artean.

Nork emango digu antidoto zuria?

GARAGARRAREN ORRI BERDEA

Ez dakit ilargi bako gaua den
edo zu, jada ez didazuna
hitz egiten ametsetan.

Ez dakit lanbroa den
edo zure irudia, apurka ahaztu
egiten zaidana.

Ur hotzen putzua,
urteokaz eroritako
euri guztiek sortua.

Zure esnearen titia kendu zidan
bidelapurrak
mendebaldea seinalatzen du.

Garagarraren orri berdea,
ez dakit zu zaren
edo faltan botatzen zintudan bitartean
irakurri dudan
balada errumaniar bat.

MASKARA KENDU NUEN

Betile artifizialak lez luzangak eta okerrak diren hareazko hondartzetatik ibili nintzen, baso dardaratsuan ia atzeman zintudan urak nenufarea ukitzen duen leku horretan.

Zer edo zerk bultzatzen ninduen harrapaketara, uste dut zure ihes egiteko era zela: kimu berdeen minean sustraien sarean lurperatu zinen.

Nire aho amuz betea inguratzen duten azukrezko gatzagak zeharkatu nituen eta ukitu nituen, arinki, udako lehen amaierako erleak.

Nekatua, usteldua, argirik gabe ezpainik gabe amore eman zenuen: plastikozko belar gainean etzanda azkenik nire metamorfosiaren maskara kendu nizun.

GOIZABARRA

Arbola altuek azken izarrak eman dituzte
azpitik goaz gu aire sargori honetan.

Gerturatzen ari gara
gero eta ozenago kantatzen dugu
hilak ez daitezen hil iristen garen bitartean.

Elurra orratzaren eta sortutako kaltearen gainean
elurra eskumutur urdinaren gainean.

Gerturatzen ari gara
gero eta ozenago kantatzen dugu
hilak ez daitezen hil iristen garen bitartean.

GORPUAK ETA GAINONTZEKO GAZTEAK

Txakurrak ikusi ditut birritan
aintzirako uretan edanez,
zabortegiko ihiak
jaten dituzten umeak.

Eta badakit penak dituzuela,
penak dauzkat nik ere,
baina nireak, zuongan pentsatzen dudanean,
ez ditut sentitzen kasik.

Beleek jazarriak
zaldi gosekilen gainean ikusi ditut
zaldi azulak,
kaparra beltzez betetako bekokiak
eta zela gorriak
izar gorri banarekin
arrosa biren artean.

Ze lo txarra eduki dugun denok bart odol
lehorrarekin.

Lainoa zerien ortuetan,
goizaldeko hotzera arte ibili gara.

Eta badakit oroitzapenak dituzuela,
oroitzapenak dauzkat nik ere
baina nireak, zuotaz oroitzen naizenean,
ia ez ditut gogoratzen.

Inoren berotasunik gabe
hilko zaretenok,
jendeak hemen jakin gura du
nora zoazten nora
gure zainetan gora.

NIRE LEKUA

Nire lekua erreka
udaberriko sagarrondo zuriak
erdibitzen dituen lekuan hasten da,
justu kontrola paratu duten bidegurutzean
euren armak agertuz.

Nire lekua da bidegurutze horretatik
zelai-zelai jarraitzen duen
belar-ahoen eta hautsezko bideen
azalera hori guzti hori.

Geratu egiten da une batez, denbora,
bat egiten duten lekuan hitz hauek
horko haitz horiekin
iritsi arte amonalaren
fardel zurien ezkutalekura.

Nire lekua jaisten da gero
pinu ustel baten azalaren pareraino
eta sigi-saga hasten
igelen meandroetatik, izarratutako gauetan.

Nire lekua da zirkulu hori,
baserrien artetik igaro eta ixten dena
amets eta harri txokorren artean.

Horrela nire lekua itzultzen da bere lekura,
gazte bi behin eta berriz
urperatu zituzten erreka,
etengabe daramatzana urrun
altzairuzko urak
eta beste asmo batzuk.

GONBITA

Apurka. Apurka bere gogotik
aldentzen eta ezabatzen ari naiz
baina oraindik ezagutzen nau
eta nigana dator.

Bere itxarrotearen kristalean
loa galdurik egun osoa eta gau osoa
loa galdurik, iritsi da
jaio berrien adinera.

Ematen du eguzkia, orriak,
orriak kaminoan
eguzkia kaminoan orrien gainean
bere besapeetatik sortu direla.

Bide hauetako asko, gainera,
desagertu egingo dira bera desagertzean,
itzaltzen ari dira euren orri berde
beilegi, nabar, beltzekin...

Miresten dut mundu erraz hau

itzela, itzelagoa
munduaren arima baino, amama,
hezurak lurrundu zaizkizu ia!

Ematen du eguzkia, orriak,
orriak kaminoan
eguzkia kaminoan orrien gainean
zure esporetatik sortu direla.

Eskua ukitu dizut,
zure zahartzarora sartu naiz.

BETETA

Erreminta ondo zorrozuta eduki.
Neguko isiotutako txapako takoaren
haritz egurrarekin egin
txaramel bat leihorako.
Bitartean pentsatu bai
argi dago aurten ez duela jarriko
hainbeste ortu.
Ez errezatu ez ostiarik bazkal aurretik.
Siesta bota
eta ametsetan sentitu
leunki ukitzen duela
emaztearen izter zuria.
Txakurrei pospolina askatu.
Portalean eseri
zigarro bat bildu
lainoak ikusi Dimako haitzetan
eta duda egin:
egun zoriontsu honen ostean
etorriko ote da beste bat?

FESTINA LENTE

Ipuin bateko argia
eta formen ibarrak
begiak loreetan eta
eskuak pianoan
denbora arina da batzuetan
denboraren
airea bezala.

Adats luzedun neskatoak daude
diadema kentzen
sentiberak direnentzako
ur-jauzi bat dago eternala
eta ontzi zuri bat itsasoan
iragaten ari den guztia lez jada
etorkizun hauetan.

BOST MENDE BELE

Emakumea hil dute eta gizona hil dute
eta euren Baskoniaren abortua hil dute
hil dituzten kaleei izena ematen dieten izenak hil
dituzte
gure hagin zatiekin batera erortzen diren ahoak hil
dituzte
odolarekin makilarekin minik ematen ez duten
hitzekin
inoiz zutunik gaudela hil dute oinpean lurra
desbideratu dute erreka
hegazkinekin hil gintuzten eta oraindik ere
txarrean maite gaituzte ilearen zuztarretik hiltzen
dute
eta guk etsi-etsian hil aurretik hiltzen dugu
hiltzorian hiltzen dugu
biktimak bezala hiltzen dugu.

JARRI DIZUTE ESKUAN

Kableak jarri dizkizute buruan
zure gorrotoaren gar bakoitza
ezagutzen dute
irainen fumigazioa
ahuldutako borondatearen gainean.

Haragiaren egurra jaten dizute
eta zoratu egiten zara neskalagunaz
hitz egiten dizutenean
ezagutuko balute bezala.

Askatasuna begietan, umeak daude errekan
hezurrak karean, amaierako horma ederrak:
desagerpenean sinesten hasi zara.

Makurrarazia,
pistola jarri dizute eskuan
zin egin duzu
bizien bizitzara itzultzen bazara
zugatik aldatu beharko dutela legea beste behin.

LAZTAN NAZAZUE

Kristal bako leihoetako frankotiratzaileok, begira
nazazue.

Ate lehertuen jendetza asaldatuok, bila nazazue.

Urruneko pinuen ahotsok, laztan nazazue.

Urpeko ispiluetako aurpegiok, atzeman nazazue.

Gardentasunaren beso zaintsuok, altxa nazazue.

Urruneko pinuen ahotsok, laztan nazazue.

Gela hutsetako mamuok, eraman nazazue.

Txikitako oroitzapenetako lekaimeok, urka nazazue.

Urruneko pinuen ahotsok, laztan nazazue.

MAITASUNAREN OSTEAN MIRAILA

Maitasunaren ostean miraila
azazkal luzeak
Bostongo abokatuarenak
Bangkokeko prostitutarenak
maitasunaren ostean usaina
oxigeno bako airean.

Niri berdin zait orain badator
guztiontzako azken goiza
edo hau izatea hain zuzen
zerbaiten hasierako poza.

Hemen gera ninteke eta sinetsi
iluntasun hau
non entzuten dudan arnasestua
non suma dezakedan lurruntzen
bere gorputzeko ura.

Orain dela asko
neure buruari esango nion

segi, ahalegindu berriro.

Eta arinago oraindik

hil egingo nintzen onartu baino lehen

Lisboako harresiak.

Baina orain hausnartu eta diot

uztazu, uztazu,

une batez behintzat eduki duzu

zuku leuna.

AZULAK GAUEAN

Ezagutzen duzu abestia
Judy Collinsek kantatzen duena zapi zuri bat ahoan
sasoi bat dagoela jaiotzeko, sasoi bat hiltzeko
sasoi bat landatzeko, sasoi bat uzta biltzeko
sasoi bat gaixotzeko, sasoi bat osatzeko
sasoi bat barre egiteko, sasoi bat negar egiteko?

Bada, negar egin dugu
eta gaixotasunaren medikamentuek
aurpegia puztu didate
gorputza puztu didate ilea hazi zait
zure bularrak irin bustia izan dira
eta labanak amesgaizto baten antzera
zoramenezko egun argiz bizietatik
iritsi naiz gure amodioaren bakera
iraganaren hondakinen gainean
maitatu zaitut
mutil-lagun zaharraren gorpuaren gainean leun
ibili zara
ia genitalik gabe, dena adimena
eta atzamarra

burua zure trenbidean jarrita
etorkizuna entzuten da ahausika
etorkizuna entzuten da aurpegia erdi janda
aurpegia erdi janda badatorrela
erdi janda badatorrela
argia itzaliko dut, ardura ez badizu,
bakar-bakarrik zure begi azulak gauean.

NEFERTITI

EZ ZAUDE BAKARRIK

Ez zaude bakarrik
uhandre hotzak daude
putzuan
mugimendua eta minbizia
zeruan.

Ez zaude bakarrik
ni nago
pitxi ustelak ekartzen
dizkizuna
paradisutik.

Ez zara hilko
beti-betian ibiliko zara
ospitaleko laku
zurietan.

Ez zaude bakarrik
nire depresioaren helizeek ere
gurutzatzen dituzte ibaiak, ibaiak, ibaiak.

BASA AHATEA

Nire begiak maite ditut
zure begi malkarretan pausatzen direnean
klorodun uretan hazi ginen
eta odolaren baldeetan.

Gaur atzera usaindu ditut, lora iharretan,
zure ahotsa eta hildako ileak
zure enblemaren gose
beste aldera igaro naiz.

Telebista uhinak neguko arratsean
laztan eta laztan nabil
albumaren larrua:
maitasunak ez daki gelditzen.

Tristezia drenatzen didazu
oroimenaren aintziratik
hildakoen esperantoan
istripuaz hitz egiten didazu.

ITZULALDIA

Uzten ari naiz nire hezurak, zure loreetara
josiak oraindik
uzten zaion bezala oinazearen
zigarroak erretzeari.

Itzuliko ez diren
hogeita bi urteetatik honako nire maitea,
ez nekien hau izango zenik
ni izateari uztea hainbeste.

Zure Fenixari eman nion sua da
egunotako uholdea,
errua eta beldurra:
min ematen didate, leku guztietan,
batera egon ginen lekuek.

Eta bizitza traizionatzen duten musuak
gozatu ezinik.

Eta zuk ulertzen dituzu nire modukoak,
batzuetan ez direnak kapaz
osoki maitatzeko.

Eta seguruenik zu ere itzuli zara perretxiko
pozoitsuena

bideetara.

Zelan ez,

Edenean igarotako azken egunak izan ziren.

LETANIA

Ur guztiz garbia
ur basokada
germen-ura
haitzuloko ahoko malkoa
probatzen zaitut odola
lehenengoz probatu duten
otsoek bezala
haragia
eta haragitik hezurak guztiak
atseden hartzen dutenak
esnea bukatzen zaienean
palmondo baten azpiko
erreka baten hondoan
eta haren ertzean berriro
zurtoin gabeko lorea zara
karbonozko zelaietako lorea
bizitzaren begia, begi boteretsua
ama bortitza eta ahaltsua
izarren ama
ama sufritzen, baina naroa
gizakien eta lehen uzta

alferrik galduaren
erregina:
nora ezean nabil
udazkenetan
goiz urdinetan
eta nola pentsa dezakete
sinesgabeek
desagertuko zarela zu
nire irudimenetik?

LIBAZIOA

Baietz diozu, eta jaikitzen laguntzen diozu
eta gupida erakusten duzu, eta gezurra diotsozu
eta baietz diozu, eskuzabal.

Baietz diozu, batasunagatik, gaixotasunagatik
zure laringea da bere besokoa.

Baietz diozu, ze azken batean
luzea da bizitza
eta bere sufrimenduak hunkitu egiten zaitu.

Errukia dizu, ulertu egiten zaitu,
eskertu eta errespetatu egiten ditu esku horiek
gorputza garbitzen diozunean, rola onartuz.

Baietz diozu, behin eta berriro baietz
pentsatuz, agian
bizitza luzea dela oraindino
sanmartinetako uda txikia bezala.

Baietz diozu, eta oheratu egiten duzu
eta gupida erakusten duzu, eta gezurra diotsozu,

eta loak hartzen zaitu
egun hauek ordezkatzeko dituzten egun berriak
etorriko direla amestuz
bera betiko gazte izango denean
zure bular idorretan.

AITA ETA ANAIA INDUSTRIALDETIK

Oraindik hutsik dauden partzeletan
belar zakar eta sikua.

Ez dago nahaste perfektuagorik
ahaide odola baino.

Zeruak eta egunek inarrosiak,
haltzen artetik igaro
eta uretan orriak diruditen
argi izpien ondotik doaz.

Gauza asko pasatu dira
igitaia zorrotzen antzera baina
gaur arrastirian
dena fintasuna.

Ez hunkidurarik
ez denborarik euren paparretan.
Aita eta anaia industriadetik
elkarri hitz eginez bezala.

Denok behar izaten dugu,
atseden hartzea esaten zaio.
Eta harrotasunarekin ahalko balute
nire arrankariak ibaian gora igo haraino!

AHOTSA GALDU ZUTEN MENDIAN

Badakigu zein den amaiera
baina horrek ez du itoaldia arintzen.
Eta hala ere zalantza.
Tragediaren teatroa horixe da:
dena dator sarreran banatu duten esku-orrian,
baina zabalik daude dena eta ez dena,
bete liteke
azkenean gertatzen ez dena,
bitxia, baina hala da;
Intxorta eragotzi zitekeela
ematen du, badirudi
gure ereserkia ez zutela
kantari etsi haiek kantatu.
Kantari etsi haiek,
urteak geroago
ez zetozenak bat ezta
guk eurei buruz geneukan iritziarekin ere.

GREZIARRAREN GALDERA

Greziarrak galdetu zidan
halako batean:

—Zenbat zarete euskaldunak?

—Hiru milioi —erantzun nion.

Eta harago joan nahi izan zuen:

—Eta horietatik zenbat dira
benetako euskaldunak?

Eman ahalko niokeen
erantzun elegantea:

—Hiru milioi.

Eman ahalko niokeen
erantzun ortodoxoa:

—Ia hiru milioi langile.

Eman ahalko niokeen
erantzun literala:

—Zortziehun mila.

Eman ahalko niokeen
erantzun zahar ederra,
nire hamasei abizen
euskaldunena.

Baina Sokratiko haren aurrean
ihardetsi nuen:
—Gero eta gutxiago dira
euskalduntasunean heziak
munduan.

EZ DUT ZURE BIHOTZ EZEZAGUNETIK ARNASTEN

Iruditzen zait beti
daroadan bizitza baino
askoz zoriontsuagoa, bihotza,
bizitza zure ondoan
nahiz eta ez dudan zure bihotz ezezagunetik
arnasten, bihotza,
ezin dudalako zure bizitza osoa eduki.

Zure ilea gorri argia da
apaindegian saltzen duten sua bezalakoa,
bekain beltzek salatzen dute ostera
pubisaren belztasuna
eta izter zabalak
ez datorren zerbaiten
zain daudela ematen du.

Eta azalaren kolore arean zurbil horrek
iragartzen du beste zerbait:
agian aita, gaztea oraindik baina gaixorik.

Nire buruari galdetzen diot
ze irudi daukazun zure buruarena.
Niretzat ederra zara guztiz baina
ez dakit ikusi nahi zintuzkedan biluzik.

USTEZ MAITASUNA

Et a hau da, diotenez, maitasuna,
maitasuna dela diotena bizitzea
ohituraz eta fanatismoz,
larrutan egitea larruaren hutsunea igarriz,
larrutan egitea obulua buruan,
txakurrek bezala
zeinak hiru egun dabiltzan errari
usainaren xerka
—bidean umeez harrika hartzen dituzte
eta autoek zapaltzen atzeko hankak—,
eta hau da, diotenez, maitasuna,
haragia murgiltzea esne minduan,
ziraun mutilatuak itsasbeheretan katigaturik
linternekin joatea bizitzaren bila
eta soilik aurkitzea tarratatutako oihalak,
maitasunaren eta arbuioaren artean atea jo arren
jakitea
zapaldutako mahatsa ez dela botilara helduko.

GAUR EZAGUTU ZAITUT

Gaur ezagutu zaitut solasaldiaz maitemindu naiz berba eta berba ari nintzen artean zuk berba egin didazu.

Zure ahizpa txikerraz maitemindu naiz, deskribapen bakoitzaz: zure herria, etxea, itsasoa.

Eguzkia sartu da gela suntsituan, argi ezpalek min ematen dute.

Gaur ezagutu zaitut eta orain neure burua zigortzen dut ez naizelako egon zure zain urte hauetan guztietan.

ZERUKO NESKA

Egin jaramon ahotsari,
oputzen dizkiozun berben
eta berben arteko
denbora tarteei.

Gauza ederra da
liztorraren katu-begi horiei
begira egotea,
hauts bihurtuko den
aurpegi hori laztantzea
laster ahaztuko duen
zure aurpegiaren kontra.

Lorategi azpian
errekak dabilta azken batean,
eta aspaldi idatzi zuten
goseagatik norbaitek bere burua
estu ikusten badu,
eta bere asmoa ez bada
okerrik egitea,
goza dezakeela.

Gozatu beraz
zeruko mutil bat dirudien
neska horrekin.

ORAIN ORDUKO AZAL ITZALIA

Ezin osotasunera iritsi
eta apurka noa: intsektuaren
hegoak rotaflexa bezain gogorrak
erreka inbutuetan barna
bake honi jartzen dizkiodan izenak
zauden leihoaren bihotzari
zetazko hariak jaurtiz
argi beilegia bezala

Marokoko olioaren erretzeko papera lizunduz
malenkoniatsuki pozten naizen bitartean gutaz
aspaldi honetan elkar ezagutu genuen gaueko
zure irudiarekin oheratzen naiz

azal itzalia irudimen beteezinaren gainean
gaur gorputza aireak eraman dezan utziko dut,
musu

ematen diet zaurietako puntuei, amaitu da
oinaze handi bat, igo naiz
zauden leihoaren bihotzera

argi beilegia jaurtitzen duzu
zetazko harietatik gora

PORTO

O Fado ez balitz egon konpleto
eta geratu izan bagina
paseo hau galduko genuen
Douro bazterretik
iluntze hau uretan.

O Fado ez balitz egon konpleto
ez ginen ibiliko Sá de Bandeiratik gora
pena honekin bihotzean.

Ez bagenitu kale hauek igaroko
hasiera eta amaiera gabekoak
bertute eta bekatu bakoak
alaitasuna eta samina biak
omentzen dituztenak.

O Fado egon izan ez balitz konpleto
beharbada ez genuen ulertuko
munduko hitz guztiak
eta munduko gitarra guztiak
ez direla nahikoa
Saudadea definitzeko.

BELDURRAGATIK DA

Beldurragatik da
ez jakiteagatik, behin hasiz gero,
bukatuko ote den inoiz.

Urruneko dikeek nar egin dute
eta beldurra, logelak zeharkatuz,
lerro hauetara dator.

Dena aldatu eta deuseztatzen denean
lehenengotan ez daukagu nora joan
eta gero badaukagu nora joan.

Gainbehera datorren inperioaren
matxinatutako kolonietan
laster izango da zehazki udaberria.

Barkatu zure aitari eta zure amari:
behin elkar maitatzea erabaki zuten
umearen aurrean.

MENDEBALDE

Begiak pozean negarrez ari direnak
ostadarra
haren zain nago.

Argitasunean behatu ditut
aireko zozoak
bide berriak asmatzen.

Merezi ez ditudan ikusgarriak
dira hauek
kimu berdeetan
arriskua eta laborria
erne dira.

Eta ibaian
jertse bustiak
hotza landetatik gora
etxe-portaleetaraino.

Nire barnean ostadarra
euri-lanparra eta argia
gurutzatzen diren lekuan.

NOLA DAKITE?

Eguzkiak pizten duen
zeruko ihintza bigun dago
badirudi estepa-loreek iraungo dutela
apur bat gehiago.

Baina justu orain
beroaren indar guztiarekin
lainorik gabeko negurik gabeko
egun honetan
maitea
badoaz antzarak.

IAZKO URTEBETEAK

AGINDUTAKO PORTUAK

Argi urrunak
zure baitan:
egiazko hiri bateko
argiak dirudite.

Harantza zoazela
irribarre egiten duzu
begiratu barik,
edo ikusten duzu zerbait?

AZAROA DABIL UDAKO BIDEETAN

Oroitzapenek orainaren ilusioa sortzen dutenean eta uretan jarriz arrosa sikuak eta maitasunaren laztasunak harrituta maitasunaren laztasunak harrituta.

Euria leiho beltzetatik behera datorrenean euria datorrenean fatxadetan behera masailetan denborarik ez denean gehiago otsoek inguratzen gaituztenean.

Ausentzia hitzak pisu guztia galtzen duenean gau honetan ilargiaren zuritasuna zeruak ematen du
Mekanika Eskolako korridore bat.

Bizitza lehenbizi pentsamendutik pasatzen delako denborarik ez delako gehiago itzalek tapatu dutenean zure burka osorik azaroa dabil orain udako bideetan.

HILKETA IRUDIMENEAN

Zure begiek honezkero badaukate
bizitzaren zornea
imanak honezkero badauka iparra
zuga bizi dira beldurra
eta esperantza
zoramena
larrutaldiak dutxan
arratoiak ohean
eta putzuen ikuskizuna ordokietan.
Iritsi zara bertara, ez dago inor:
forma bat uretan
ez dena forma bat uretan
ezpada gorpu zuri bat
ez dagoena bizirik, ez dena usteltzen
ikusezina dena
zu bezala.

Maite zaitu, ea kontuan jausten zaren.
Seinale bat behar duzu?
Hemen daukazu:
ardoa bere bularren artetik erortzen.

Begiak zabalik larrua jo zeniola
gogoratzen duela diotsu
samurtasunez diotsu
uhal eta alkohol eta mehatxuen
lehen egun hartan bezala
samurtasunez diotsu
bonba-autoaren atzeko eserlekuan bezala
samurtasunez diotsu
lorategian bezala, festaren ostean
belar gainean etzanda, zigarroa ahoan
aire epela, zer gehiago behar duzu?
Zer gehiago?

Izter mehe gosetiak eta orbainak
itzul zaitetz, esaiozu behingoz:
ez zarela bahiketaren
egunean bezain
zoriontsua izan sekula.

Biluzik, manta bat aldean,
lupetza
erlijio apur bat
itsutasuna

masokismoa

argia

labanak

esan egin behar diozu

izan dadila orain, izan dadila orain

zuon hil-musuarekin

masturbatu ahal izango gara besteok

urteetan

urteetan

urteetan.

GIHARREN BITSERAINO

Utzi musikak eraman zaitzan
zure nerbioen bazka
ilargiak bezala betetzen dizuna aurpegi osoa
eman amore utzi pentsatzeari
ez da belarra: sobera suabea da
ez da alkohola: ez duzu hainbeste edan
eta zure mahats-parretatik gora dator poza
katakanba ederretatik aurpegi freskoraino
meazuloetatik gora giharren bitseraino
utzi eraman zaitzan bidaiari
bidaiaren zatirik onena da
bidaiaren hasiera
argiek dirdira egiten dute
gorputzetara iritsi ahala
gero eta indartsuago
gero eta indartsuago
gorputzak
gorputzak
desagertutako gorputzak
laster beteko zaitu
zure barnean tai gabe errepikatzen duzun

abestiak hartuko du dena
ate bat eta beste bat eta beste bat
pentsatuko duzu zoratu zarela guztiz
eman amore utzi pentsatzeari
itzul zaitez adimenaren barnera
gauaren osteko gortina gorrien ostean
muino leunak daude ur azpian
bidaiaren zatirik onena da
bidaiaren hasiera.

ENPRESARIAREN EPEMUGA

«**K**ontuz arratoiekin»
esan zion aholkulariak
ikuskaria errebelatu zion
guruak batzargelan.

Beste gauza batzuk ere esan zizkion
baina batez ere ohartarazi
«kontuz arratoiekin».

Ez zegoen arduratuta alabaina
zereginak eginda zeuzkan
deitu zituen ordurako sindikalistak
suntsitu zituen banan-banan.

Lasai zegoen. Baina bitartean Txinan
zerebroa zorrozten dute:
kopiak prestatzen dituzte
arratoiaren urte beti oparoan.

KAVAFISEN POEMA BATEN ANTZERA

Maitasuna harekin gaua izan da
eta perfekzioa
—denbora asko
inorekin egon gabe—
beharbada arretatsuegi ibili dira
arean zurrun gorputzeko botoiak
baina ohe gainean biluzik
ez da hozten.

Izan ere zati batean
amodio honi beroni lotuko zaio,
gorputz honen beronen irudiari.

Hala izango da.

Goizean, hura joandakoan
plazer bakartiari lotuko zaio berriro
baina gar honen irudiarekin
berri bat asmatuko du
ez hain aratza eta onesta
baizik eta lizuna, beroa eta zikina.

GOIZAREN OPARIEI BURUZ

Batzuetan bizitza denean ia
behin hura ordezkatu zuen ametsa
loreetan lehortzen ikusten ditut
etorkizuneko loreen haziak.

Hauek dira orain dauzkadan egunak
atsedenaren laino geldoak,
maitasunaren haragia jatea,
gosea pasaraztea gorputzari.

Iratzarri naiz
beste edertasun baten ondoan,
promesa egin dut:
ez konparatzea hau
beste ezerekin,
paralizatzea bere duda
nire ezpaineekin,
ez uztea ia seinalerik
bere azal berrian.

ZURTASUNA

Auto beltz luzeak
etxe ondoan aparkatzen duenean
motorra, eta argiak
itzaliz
batzuk beldur dira
euren ondasunengatik
beste batzuk euren gorputz
kolpatuengatik.
Ni beldur naiz piztiak ez ote duen
burua itzuli gau beltz luze honetan
pentsatu dudan zerbait usnatzean.

ATSEKABEA

Zorua, ezentzunarena egiten diozun arren
bete-beteen asmatu duena.

Mozkortia, begirada aldendu diozun arren
iltzatu dituen jadanik bere begiak zure garunean.

Narbalaren adar bakarra,
inork ez dakiena zertarako den.

Azken tragoa, pentsatu ez arren
beheraldian jarri zaituena.

Itzala, zurekin doala uste arren
Galileara bidean aurreratu zaizuna.

Gezurra, sendoa dirudien arren
ez dena gezurraren metastasia baino.

Maria, leun bortxatzen duzun arren
ez duzuna hunkitzea lortu.

Eta umea, jo egiten duzun arren
ez dezakeena aldatu zukanako maitasuna.

AGURRAK

Igerian ikasi zuten ibaia
utzi dute emakumeek
ez dute joan nahi
ez atzean geratu
egunen batean ez dira
existitu ere egingo
sastrakadietan
ilargi zurbilak.

Bizitza hustu zaio
eta elkarri eragindako mina, badakizu,
aitarekin egoteko egin ditu
kilometroak eta kilometroak semeak gauean.

Eta zenbat jende horrela
argizariaren haragia
inork ez du sosegurik aurkitzen
eta inoiz ez da kontsolamendua osoa izango,
baina euren zati bat
desagertzen den bitartean
heriotzarako
gertatzen dira.

IAZKO URTEBETEAK HASI DIRA USTELTZEN

Alkandora malkoen urarekin plantxatzen.

Negarrez udaberrian.

Onartuz, emeki, dena.

Zure buruari baimena emanaz

pentsamendu alaiak eduki ditzan.

Anputazioaren mina

eta kimu berriak,

egarriz hiltzen ari da

iturria.

Kalea laburra, meharra

eta iluna da,

baina handik gora bakarrik daki

bihotzak joaten.

Hiletetatik hartuz

soilik loreak.

Hiroshimatik hartuz

gauza atseginak.

Iritsi zara, kanpoan eguzkia,
inoiz ez bezala
eta bidearen amaieran
goroldioz estalitako harri baten gainean
txindorraren hezetasuna.

Hark ez du migratzen,
kantua da, kantua zuretzat.

EGUN EZDEUS BAT

Dena zuritzen duena
zure larru
gorriz zipriztindua da
 jainkoen
 bildotsa
 bihurtu zara

Esango dute oraindik
zutik dela Arbola
 ez dela alferrik
 isuri odola
 belar gainean

Eta ordena naturala
ezin denez desegin
 neskatxi bat
 jaioko da
 zure odoletik

 nonbait berriro
 Matalazen
bihotzarekin

TORTURA ESPAINIAKO ERREINUAN

Behin sektan sarturik
ezinezkoa egiten zaie ateratzea
eta ez dute bihurtu nahi
ez egia esan

baina uraren froga egiten zaie, haren gainean hondoratu barik ibiltzen direlarik, eta beste zantzu batzuk ere bai, infamatuak gogor tematzen dira ezetzean eta inoiz konturatu barik ateratzen zaie badirela, nahiz eta hurrengo egunean ustea aldatu eta ezetz esan, baina gero diote beste batzuk ere markaturik daudela eta izenak botatzen dituzte eta inork esan izan du inoiz, deskuidaturik, ezin zezakeela esan. Eta hurrengo egunean galdetu eta ukatu. Tormentu eta kordelekin aitortzen dute badirela, baina izatez benetan ez direla. Tentuz ibili behar da ha ta guzti be, deabruak limurtzen ditu-ta uka dezaten egia, euren delituak astunagoak izan daitezen sakrilegio horrekin,

baina tormentu eta kordelekin aitortzen dute badire-
la.

Relación de las maléficas de Cantabria

R.M. Azkuek bildua

(bertsio librea)

INTSOLAZIOA

Chaniako hotel zahar bateko
leihoa zabaltzean
organoak sutan dauzkat,
gorputzaren gauean
eguzkia.

Sekula hemen izan ez arren
gogoan dut
horitutako itsaso hau
egundo lehenengoz
ikusi nuen aldia.

Aditu dut ametsetan zabilta Igor
eta ernatu naiz baina
igaro naiz, nik uste,
beste amets batera
arrastia urratzen duten
txitxar ikusezinen artetik
elur hotzetara.

Gauza berrietan zaudeten
oroitzapenok,
itzul nazazue

konortea galdu dudan
ohe honetako
izara hutsen artera.

GOGORIK EZ

hitz egidazu

zoroetxe zabaletako gauaz

argia itzali eta

hontzen aurpegietako argiak

pizten diren uneaz

zure buruko zaratak dira

hautzarotik torturatzen zaituzten

bukaerako hersturak

ez, ez ezazu amorrazioa estali

zatoz hautsitako

saihetsen barneko bularrera

orain arteko emakume guztiek

besarkatuko zaituzte

benetan

negar-arpulu hauen belardira

eroango zaituzte

MADemoiselle

Hondartzetako gorputz gazteen azala
bizkar bat ferekatzean
udaberri hasierako moxalen ile horia
adats bat usaintzean

badakit lurralde ezezagunak daudela
ametsak baino harago ur moreak daudela
azkenean orriak jausi eta usteldu egiten direla,
badakit

baina bizitza osoa baino luzaroago bizitzen
eta harritu egiten naiz oraindik
denborak eta plazerak ukitu ez dituzten
bazter berriak kausitzean

bizitza diot eta zugan pentsatzen dut
laztana
zabalagoak dira nire
eremuak zure ezpainetan

EZ ORAIN, EZ INOIZ

A rin igaro da iragana
aurreratu ditu hegazkinak
Beotibarko zelaietako
uholdeen gauean
gerla bukatu berri
umeari begira gaude ea
lo dagoen
eta ez dago lo
ahoz gora dago
begiak zabal-zabalik
laino beilegien azpian.

Kontatu dizkizuedan gauzak
arrainaren eta haren arrautzen
ur-lasterren orrialdeotan
ez dira errekaren ametsak
baizik eta ezin ukan guztiak
zeinak, batzuetan, garden
itzultzen diren
hitzekin pentsamendura.

Atzean ezer ez daukan ezinegona
eta zauriari darion baltsamoa
laster elur maluten aldera egongo den
leihoa bezala
udan hasi zena
udazken eder honetan sartu da.

Zenbat kolore zenbat poema
batzuk beste batzuen ordeztan
lehenengoz jotzen duenean
azken hego-haizeak.